



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Zertarako iragana aztertu?
Emakumeen historiak
berreskuratzen Nafarroan
(1936-1948)**

*Aitor Garjon Irigoien eta
Amaia Kowasch Velasco*

119-125 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.15>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



BERGARA

Zertarako iragana aztertu? Emakumeen historiak berreskuratzen Nafarroan (1936-1948)

Aitor Garjon Irigoien, Amaia Kowasch Velasco
Generoa eta errepresio politikoa Nafarroan (1936-1948)
aitor.garjon@unavarra.es

Laburpena

Testu honek 1936-1948 urteen artean Nafarroan eraildako emakumeen historiak jaso dituen ikerketa bat du abiapuntu. Lehenik, lana aurkeztu eta urtebete beranduago lortutako datuekin azterketa bat egin da emakume horiek jasan zituzten errepresioen inguruan, datu berriak aurkeztuz. Bigarrenik, egindako prozesua azaltzen da erabilitako iturrien inguruko analisi bat eginez eta iturriak zenbatuz. Azkenik, egileendako memoria egitearen prozesuak zer suposatu duen aztertzen da, etorkizuneko norabideak seinalatuz.

Hitz gakoak: generoa, errepresioa, errepresio sexuata, lehen mailako iturriak, memoria.

Abstract

This text is based on a study of the stories of women murdered in Navarre between 1936-1948. First, with the data obtained a year after the presentation of the work, a study has been carried out on the repression suffered by these women, presenting new data. Secondly, the process is explained by an analysis of the sources used and the quantification of the sources. Lastly, it examines what the process of making memory for authors has meant, pointing to future directions.

Keywords: gender, repression, sexual repression, primary sources, memory.

1. Sarrera eta motibazioa

Ondorengo testua egindako ikerketa baten azalpena da, ikertutakoaren objektua zertan datzan azalduz, baina, batez ere, prozesuaren nondik norakoetan arreta jarritz. Orain dela lau urte izena eman nuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan tesi batean eta argi neukan ikertu nahi nituela generoa eta errepresio politikoa Nafarroan 1936ko altxamendu militarren eta ondoko urteetako testuinguruan, zehazki 1948 urtera arte. Era berean, ikerketaren aro historikoa 1948 urtean mugatzen da, 1936an ezarritako gerra bandoa, aginte militarrek erabakita edozein pertsona akabatzea ahalbidetzen zuena, indarrean egon zen arte.

Momentu berean eta batera, memoria historikoaren arloan lanean urteak daramatzan Amaia Kowasch Velascoekin ikerketa prozesu bat martxan jartzea erabaki genuen. Argi geneukan zer zen nahi genuena eta lan horri ekin genion. Nafarroan 1936ko eta ondoko errepresioak emakumeengan jo zuela bagenekien, gertaera zehatzak eta ezagunak barneratuta genituen, baina ez genekien zenbat emakume erail zituzten, ezta ez genuen topatzen toki bat ere (liburu bat, web-orrialde bat, artikulua bat...) non emakume horien guztien bizitzak biltzen eta kontatzen ziren. Ikusten genuen emakumeek jasandako errepresioa gutxi landua zela (monografiaren bat, ikerketa zehatz gutxi batzuk, *Navarra 1936. De la esperanza al terror* liburuan non emakumeen kasuak jasotzen ziren...), eta ez zela ikerketa orokorragorik existitzen. Halaber, emakume horiek ikusgai egin nahi genituen, haien historiak kontatuz eta sozializatuz.

Horregatik, ikerketa horretan murgildu ginen eta lau urte eta erdi beranduago, 2024ko apirilean, *Nombres que recorren el tiempo. Mujeres asesinadas en Navarra 1936-1948* liburua aurkeztu genuen. Ikerketa mugatu genuen eraildako emakumei erreparatuz, ezinezkoa zelako errepresio mota guztiak jaso, nahiz eta, ezinbestean, emakume horiek jasandako beste errepresioez mintzatzen garen. Horrela, Nafarroan eraildako emakumeak zenbatu dira, baita beste lurralde batzuetan eraildako nafarrak eta Nafarroan eraildako beste probintzietakoak ere, errealitatea osatuagoa geratzen dela uste dugulako. Liburua sarrera batek eta eraildako emakumeen fitxa batzuek osatzen dute. Sarrera euskaraz eta gaztelaniaz dago eta emakume bakoitzaren fitxa lortutako informazioaren hizkuntzaren arabera, gehienak gaztelaniaz. Euskarazko sarreraren itzulpena Miren Egaña Descargak egin zuen eta hitzaurrea Begoña Zabalak Gonzálezek.

Gauzak horrela, tesiaren ibilbidea batera jorratzen joan naiz eta beste errepresio mota batzuetan jarri dut arreta. Bateragarriak izango dira bai eraildako emakumeen datuak, bai beste

modu batzuez errepresio jasan zuten emakumeen datuak ere. Helburuen artean emakumeek jasandako errepresioen argazki orokor bat lortzea dago.

Horiek horrela, interesgarria da egindako lan horren azterketa bat egitea urtebete pasata, arreta jarritz egindako prozesuan eta erabilitako iturrietan, hots, memoria eraikitzearen prozesuan. Horretaz gain, lortutako datu kuantitatiboen eguneraketa bat egiteko eta datu zehatzagoak aurkezteko bide egokia izan daiteke artikulu hau, azkeneko urte honetan informazioa jasotzeari utzi ez diogulako.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak (Azpiatalak eta zerrendak)

Kolpe militarra eta gero hasi zen errepresioaren azterketa historikoan XX. mendeko azken hamarkadetatik aurrera hasi ziren sexuen arteko harremanetan arreta jartzen eta genero faktorea analisisetan gehitzen. Generoa, testuinguru ekonomiko, politiko eta sozialak alda ditzakeen eraikuntza kultur gisa ulertuko da (Abad Buil et al., 2012). Generoa zer den azaltzea ez da artikulu honen helburua, baina garrantzitsua da zehaztea eraikuntza sozial bat dela, hegemoniko eta mendekoen arteko harreman hierarkikoak sortzen dituen. Harreman horiek ezartzen dute maskulinoa menderatzaile gisa eta femeninoa mendeko gisa. Katgoria sozial hori gorputz sexuatuaren gainean ezartzen da, hots, sexuaren arabera (Scott, 1990). Eraikuntza soziala den aldetik, haren erdigunean boterea dago eta horregatik ezinezkoa da generoa eta boterea edozein analisisan bereiztea. Botere ez unibertsala ezta naturala ere, nahiz eta harreman horiek beti natural eta unibertsal bezala ulertuak izan diren. Harreman horiek aldatzen ohi dira denboraren eta espazioaren arabera eta horregatik analisi historikoetan garrantzitsua da nolakoak diren ulertzea (Llona Gonzalez eta Aresti Esteban, 2019).

Pura Sanchez, 2019an errepresaliatu, erreprimitu eta biztanleriaren kontrola terminoen definizioaz mintzatu zen. Bere hitzetan, errepresaliatzeak zerikusia du erasotzen edo iraintzen duen norbaiti eraso edo irain bat egiteagatik zigor edo mendeku bat ematearekin. Erreprimitzeak, boteretik desegokiak kontsideratzen diren jarduerak kontrolatzearekin zerikusia du, hainbat indarkeria maila erabiliz. Kontrolatzea ekintza eraginkorragoa da, guztizko botere bidegabe bat denboran mantentzea helburu duena. Antzeko terminoek hainbat ekintza aipatzen dituzte, eta horiek, frankismoaren kasuan helburu bera lortzeko balio izan zuten: biztanleriaren mendekotasuna lortzea edozein moduz, biztanleria horren bizitzako eremu guztiak hartuz eta diktaduraren ia berrogei urteetan egitea, une bakoitzeko egoera ekonomiko, politiko eta sozial desberdinetara egokituz (Sánchez Sánchez, 2020).

Nahiz eta kuantitatiboki kopuruak berdinak ez izan, emakumeek zein gizonezkoek errepresio mota berdinak pairatu zituzten: erailketak, zigorrak, espetxea, torturak... Nafarroako kasuan, ikerketa orokorrekin diotenaren arabera, errepresioa sufritu zuten emakumeen ehunekoa bi baino txikiagoa da. Halaber, emakumeek errepresio espezifiko bat jasan zuten emakume izateagatik, gizonezkoek pairatu ez zutena. Arrazoi politikoengatik gizonek eta emakumeek jasan zuten errepresioa, baina generoagatik emakumeek bakarrik, salbuespen bat izan arren, zenbait gizonek ere pairatu baitzuten, sexu nortasuna eta orientazioa zirela kausa. Errepresio mota hori «errepresio sexuatu» bezala izendatu zuen Maud Joly-k 2002. urtean lehendabizikoz. Emakume izateagatik haiengan eragindako indarkeriaz mintzo da eta kontuan hartzen ditu haien askatasuna, duintasuna, segurtasuna, intimitatea eta integritate moral eta/edo fisikoa ukitzen dituen eraso material eta sinboliko oro (Kelly, 2000). Errepresio sexuatuaren formak askotarikoak izan ziren, baina beti osagai sinboliko handia izan zuten: ilea larru-arras moztea, errizino-olioa irenstera behartzea, Guardia Zibilaren kuartelak eta elizak garbiaraztea, sexu erasoak, ibilaldi umiliagarriak... Emakumeek jasan zuten errepresio espezifikoaren beste elementu bat errepresio subsidiarioa da, hots, haienak ez ziren ekintzengatik ezarritako zigorrak. Horietako asko errepresaliatuak izan ziren elkarte baten ondorioz, hau da, gizon gorri eta errepublikarren emazteak, alabak edo amak izateagatik (Nash Baldwin, 2015; Mir Curcó, 2021). Generoarekiko errepresio horien helburuetako bat eredu patriarkal eta tradizionala birmarraztea zen, matxinatuen arabera Bigarren Errepublikak ahuldu baitzuen. Antolakuntza sozial horretan esleitutako rolerkin modu desegokian aritu zirenak zigortu behar ziren. “Estatu berriak” ezarritako ordenaren subertsio bikoitza zen, ordena soziala (gorria eta/edo antifaxista) eta ordena morala (emakumea) hausten zituztelako.

Ordena horrek genero harreman asimetrikoak eta tradizionalak berrindartu zituen, non laburbilduz, gizonezkoek eremu publikoan zuten protagonismoa eta emakumezkoek eremu pribatuan. Eta ez bakarrik hori, kolpistak lurraldeak konkistatzen joan ahala, femeninitasun eredu bat ezarri joan zen, bai eta generoko errepresio mekanismo berariazkoak ere. Horrela urratzaile ziren emakumeak zigortu eta berriz hezi behar ziren. Berrindartu ziren rol eta eginkizun horien artean, emakumeentzat etxea, afektuak eta seme-alabak zaintzea zeuden. «Etxeko erregina» eta «andre perfektua» arketipo femeninoak berreskuratu ziren, etxea eta familia arduraz zaintzera bideratuak. Eredu horren inposizioa eta, hortaz, emakumeen berreziketa, Sección Femenina-ren eta Acción Católica de la Mujer-en bitartez gauzatu zen. Nafarroan, eginkizun garrantzitsua izan zuen karlismoaren adarrak, *margaritak* izenaz ezagututako emakumeen elkartearekin. (Molinero i Ruiz, 1998; Nash Bladwin, 2015; Pierola Narvarte, 2018).

Arestian aipatu bezala, heriotza jasan zuten emakumeen historiak jasotzea helburua izan duen ikerketa landu da. Heriotza oinarri dute bildutako historia guztiek ikerketaren objektua mugatzeko helburuarekin, ezinezkoa baita errepresio ezberdinak jasan zituzten emakumeen kasu guztiak zenbatzea. Ez hori bakarrik, oso zaila da lehen mailako iturrien bidez errepresio sexuatuak antzematea orokorrean ez zituztelako zantzuak utzi. Gainera, gaur egun ez dira testigantza anitz geratzen garai horietakoak eta aurretik bildu izan zirenen artean emakumeek oso gutxi hitz egiten zuten jasandako errepresio sexuatuari buruz.

Gauzak horrela, ikerketa lehen eta bigarren mailako iturrietan oinarritu da. Batetik, orain arte Nafarroan egindako ikerketak ustiatu dira. Hasteko, *Navarra 1936. De la esperanza al terror* lan aitzindari kolektiboa hustu da. Horrekin batera, Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsak (NOHDF) eta Memoriaren Nafarroako Institutuak (MNI)¹ dituzten datu baseekin lan egin da ere bai. Era berean, Gogora institutuaren eta Memorial Democràtic-en datu baseak kontuan izan dira, eta ere IHR² proiektuak duen informazioa. Ez hori bakarrik, Nafarroako hainbat Memoria Elkarterekin elkarriketak ere egin dira eta beraiek egindako lanak partekatu dituzte. Gainera, errepresioaren inguruan egin diren lan monografiak eta artikulak kontuan hartu izan dira eta Nafarroan gaian adituak direnak elkarriketatu dira. Bestetik, emakume horien bizitzen zantzuak topatzeko zenbait artxibategitan bilaketak egin dira, baita senide batzuei elkarriketak egin ere.

Memoria ariketa honek emakumeen historian aurrerapauso bat izan da bizitza horiek berrosatuz eta sozializatuz modu kolektiboan. Emakumeen historiak indarra hartu zuen 60. hamarkadan eta hasiera horretan zituen helburu horiekin bat egin du ikerketa honek emakume horien presentzia berreskuratuz, ikusezina zena ikusgai egiteko (Altonaga Begoña et al., 2017). Proiektu honek bukaerarik ez duela argia izan da hasieratik, urtebete pasa eta gero lortzen ari den informazioak erakusten duen moduan. Horregatik interesgarria izan da, hasieratik, lortutako informazioaren sozializazioa, hau da, gizartean hedatzea.

3. Ikerketaren muina (Taulak, irudiak, formulak...)

Prozesu honetan eraildako 95 emakume zenbatu dira estatu kolpe militarren ondoriozko errepresioagatik. 75 Nafarroan sortuak ziren (% 78.95), 14 kanpoan sortu baina probintzia horretan hil zituzten eta seiren sortetia ezin izan da egiaztatu. Heriotza tokiari dagokionez, 44 Nafarroan hil zituzten, bi kontzentrazio-esparru nazietan, bat Ipar Euskal Herrian, hiru Frantzian, hamahiru Katalunian, lau Bizkaian, bat Araban, sei Gipuzkoan, zazpi Errioxan, bost Aragoian, lau Madrilan, bat Asturiasen; bat desagerrarazi zuten eta horietako hiruren hilketa tokia ezin izan da egiaztatu³.

Azterketa kuantitatibo bat egiteko aukera eman dute datuek errealitate hori hobeki ezagutzeko asmoarekin. Oro har, landa eremuko emakumeak dira, familia xumekoak, 30 eta 60 urte bitartekoak. Gehienak etxeko lanetan aritzen ziren eta askok ezkerreko ideiekin bat egiten bazuten ere, soilik heren

¹ NOHDF proiektua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Parlamentuaren arteko hitzarmen baten ondorioa da: <https://memoria-oroimena.unavarra.es/>. MNI erakunde publiko bat da eta Memoriaren Dokumentazio Zentro bat du ere bai: <https://pazyconvivencia.navarra.es/es/centro-de-documentacion>.

² Ondoko estekan ikus daiteke proiektu hori zertan datzan: <https://ihr.world/es/>.

³ Datuak berriak dira. Ikerketa aurkeztu zenetik emakume berri baten historia topatu da eta bazegoen batena kendu gizonezkoa zelako.

bat ziren mugimenduren bateko kide edo haietan engaiatuak. Bizitokian arreta jarritz, 95 emakumeetatik 46 Nafarroan bizi ziren eta bederatziren bizitokia ezin izan da berretsi, hots, ia kopuruaren erdia Nafarroatik kanpo bizi zen. Nafarroan bizi ziren 46 horietatik, bik Iruñean eta lauk Tuteran zuten bizitokia (1900ean hiru udalerririk populatuenetako bi). Gainerako 40ak herrietan bizi ziren, hortaz, Nafarroan bizi ziren hildakoen ia % 90 landa eremuan bizi ziren. Hilketa horiek non gertatu ziren aztertzerako orduan esan dezakegu Nafarroako Erriberan⁴ soilik emakume horien % 63,82 hil zituztela (Garjon Irigoien eta Kowasch Velasco, 2024).

Lanbide eta enpleguei dagokienez, haietako 35en kasuan ezin izan da egiaztatu zertan egiten zuten lan. Gainerako 60en artean 38 etxeko lanetan⁵ aritzen ziren, eta beste 22k prestakuntza eta profesionalizazioa zuten lanak egiten zituzten. Sei maistrak ziren, bat idazlea eta beste bat biologia ikaslea. Langile-klaseari dagozkion jarduera hauek ere egiaztatu ditugu: kantinera, jostuna, fabrikako enplegatua...(Garjon Irigoien eta Kowasch Velasco, 2024).

Errepresio motak aztertzerako orduan soilik gatibualdiari lotutako datuak aztertu ziren, modu orokorrean. Halaber, testu honetan errepresio mota ezberdinen datuak eskainiko dira berriki. Gatibualdiari dagokionez, datuek diote emakume horien % 30 preso izan zirela erailak izan aurretik, hots, 29 emakume. Horietako hiru Argelès-sur-Mer-ko kontzentrazio-esparruan egon ziren gatibu eta bertan hil ziren. Beste bi, Frantzian bizi zirenak, atxilotu zituzten haien konpromezu politikoengatik. Bat Auschwitz-Birkenau kontzentrazio-esparruan hil zen eta bestea Ravensbrücke emakumeen kontzentrazio-esparruan. Gainerakoak Madrilgo Ventas Emakume Espetxean, Iruñeko espetxe probintzian eta tokian tokiko espetxeetan egon ziren: Tuteran, Azkoien, Cabanillas, Allo, Martzilla, Lizarra...

Errepresio sexuatuari dagokionez, 22 emakumek (% 23,15) pairatu zuten errepresio mota hori. Arestian esan bezala, emakume izategatik errepresio oro kontuan izan da, hau da, beren dimentsio sexualarengana bideratutako edozein eraso (bortxaketak, eraso sexualak...); edota bere generoarekin zerikusia duten elementuen aurkako erasoak (ilea larru-arras moztea, ibilaldi iraingarriak, errepresio subsidiarioa...). 22 errepresio sexuatu kasu horietan zenbait zigor edo indarkeria daude eta horrela 11 emakumek biolentzia sexuala pairatu zuten, lauk errepresio subsidiarioa eta 14 emakumeri ilea larru-arras moztu zieten edota ibilaldi iraingarriak jasan zituzten. Datuek adierazten dute 22 kasu horietatik 21 kasutan emakumeek errepresio sexuatu horren barnean zigor mota bat baino gehiago jasan zutela. Hiru emakumek soilik errepresio ekonomikoa jasan zuten baina ezin izan da argitu modu subsidiarioan izan zen ala ez, hau da, euren senar, aita edo semeen jarduerengatik.

Horretaz gainera, eraildako emakume horien artean 48 emakumek euren senideen errepresioa pairatu zuten. Edozein errepresio mota kontuan izan da senideen errepresioaz mintzatzerakoan: erailketa, espetxeratzea, zigorrak, isunak... Datuek adierazten dute agian errepresio subsidiarioaren adibide gehiago egon daitezkeela, baina horretarako beste aldagai batzuekin gurutzatu beharko lirateke.

Egindako lanari begira garrantzi handia izan dute lehen mailako iturriek. Artxibategietan egindakoa izan da lan nagusia, non Euskal Herriko, estatuko eta atzerriko artxibategietako datuak miatu diren. Osotara 45 artxibategitako datuak lortu dira emakume horien historiak berreraikitzeke, baina baten bat gehiago miatu da emaitzarik gabe. Artxibategien errealitatea ez da hemen azalduko, baina batzuetan oso zaila eta luzea suertatzen da baimena eta digitalizazioak lortzea, batez ere Espainiar Estatuaren menpe dauden artxibategietan. Ondorengo taulan azaltzen da artxibategien kopurua zonaldearen arabera bereizita eta izen batzuk jarri dira adibide gisa taula gehiegi ez luzatzearen.

⁴ Hildakoen % 34,04 erdiguneko eta Tuterako Erriberan bizi ziren eta % 29,78 mendebaldeko Erriberan.

⁵ Horrela izendatu da etxe barruan egiten zen lan oro edo hari loturik zegoena, hau da, baratzea, azienda gobernatzea, ahaideak zaintzea...

1. taula. Aztertutako artxibategiak tokiaren arabera.

Herrialdeak	Artxibategi kopurua	Adibideak
Euskal Herria	26	Herrietako Udal Artxibategiak, Nafarroako Errege Artxibo Nagusia, Bizkaiko Agiritegi Historiko Probintziala, Iruñeko Elizbarrutiko Artxibategia...
Espainiar Estatua	14	Archivo General de la Administración, Archivo General e Histórico de Defensa, Archivo General del Ministerio de Interior...
Internazionalak	5	Arolsen Archives-International Center on Nazi Persecution, Archivo Memorial Campo de Concentración de Buchenwald...

Bestalde, ikerketarako lehen mailako beste iturri bat ere erabili da, senideei egindako elkarrizketak. Helburuen artean senideekin kontaktuan jartzea zegoen, batez ere urteetan zehar egindako lanetan jasota ez zeuden testigantzen bila. Nafarroako memoria elkarteekin harremana landu zen, baita zenbait herriko pertsonekin ere. Horren ondorioz, bi elkarrizketa egin ziren ikerketak iraun zuen bitartean: bata Caparrosoko 84 urteko gizon bati eta bestea Alloko 90 urteko emakume bati. Biek beraiek jasotako eta beste batzuei entzundako testigantzak kontatu zituzten. Alloko kasuan, herri horretako biktima baten biloba kontaktuan jarri zen informazioa partekatzeko. Horretaz gain, Alloko informatzaileak, hala entzunda umea zenean, markatu zuen eraildako emakume baten lurperatze tokia. Arantzadi Zientzia Elkartearekin eta Memoriaren Nafarroako Institutuarekin hitz egin eta gero, urtero egiten dituzten prospekzioetan eta lur zundaketetan gehitu zuten informazio hori. Prospekzioak egin ziren emaitza positiborik gabe, egiaztatuz memoria egitea ariketa kolektiboa dela.

Ikerketa eta emaitzak argitaratzerakoan aproposa izan da historia horien sozializazioa, bide berriak irekitzeko aukerak ematen dituelako. Horregatik, argitalpenean kontaktu bat jarri zen informazioa helarazi ahal izateko eta Nafar Gobernuaren *Oroibidea* proiektuarekin informazioa partekatu zen. Horiek horrela, emakume berri baten informazioa jaso zen eta harremanetan jarri ziren eraildako emakume baten senideak. Elkarrizketa bat egitea lortu zen informazio berria eta eraildako emakume bat argazkia lortuz. Informazio berriaren zati bat argitaratutako bigarren edizioan sartu da, baina esan bezala, amaitu gabeko ikerketa bat denez, testu honetan oraingo momentuan dauden datu berriak azaldu dira.

4. Ondorioak

Testuan argitu den bezala, eginiko eta argitaratutako ikerketa baten analisi xume bat egin da urtebete beranduago. Ikerketa honen zati batzuk tesi zabal batean txertatuak izanen dira, beste errepresio mota batzuen inguruko datuekin gurutzatuz. Lehenik, emakumeek Nafarroan errepresio espezifikoak ere jasan zutela erakutsi ahal izan du bildutako informazioak, non eraildako emakumeen laurdenak errepresio sexuatuak pairatu zuen. Errepresioa emakume horien sexuaren edo genero elementuen kontra bideratu zen: bortxaketak, sexu-erasoak, ilea larru-arras moztea, ibilaldi umiliagarriak, errizino-olio irenstera behartzea... Antzeko datua topatu da gatibualdia sufritu zuten eraildako emakumeekin, non herenak kartzelaren krudeltasuna sufritu zuen erailda izan baino lehen.

Bigarrenik, lehen mailako iturrien garrantzia sumatu da memoria ariketa bat egiterako orduan. Errepresio mota batzuen zantzuak antzematea zaila da, baina hainbat kasutan aztarnak topatu daitezke eta hor ikerlarien paperak garrantzia handia du. 45 artxibategitako datuekin osatu da orain arte emakume horiei buruz ezagutzen zen informazioa. Hainbat artxibategitan ez da emakumeei buruzko informaziorik topatu, baina bai beste errepresio ereduarekin zerikusia duten dokumentuak, eta horrela argi geratzen da informazioa gelditzen dela behatzeko.

Azkenik, urtebeteko perspektibak hasieran argi zegoen oinarria baieztatu du: horrelako memoria lanek ez dutela bukaerarik eta ezinbestekoa dela gaia helaraztea gizarteak ezagutu dezan, informazio berria agertzeko aukerak handituz. Beste era batera esanda, atzera begiratzea prozesu kolektiboa dela, eta gehienetan, traumatikoak izan diren gertaerei beste modu batez begiratzeko aukera eskaintzen duela. Horren adibide da Mañeruko eraildako emakume baten

bilobek hartutako poza sumario militar bat erakusterako orduan, edota beraiek argazki bat erakustean ikerlariok hartutako poza.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunari begira anitzak izan daitezke planteatzen diren norabideak. Hasteko, argi dago historia horien sozializazioarekin jarraitzeak eragina duela informazio berria lortzeko. Horretarako, egungo plataforma digitalek eskaintzen dituzten aukerak erabiltzea onuragarria litzateke. Egia da Nafarroako Memoriaren Institutuak martxan jarritako *Oroibidea* proiektuan lortutako informazioaren zati bat agertzen dela, baina agian zerbait zehatzagoa egiteak informazioa azkarrago eguneratzeko aukera bermatuko luke, adibidez, ikerketa honen webgune espezifiko bat sortu.

Gauzak horrela, topatzen den informazioarekin edota lortzen diren elkarrizketa berriekin beste iturri batzuetako informazioekin gurutzaketak egiteak analisi zehatzagoak eta eguneratuagoak egiteko aukera eskainiko luke. Edota bizitza-istorioen bidez kontakizun biografiko esanguratsuak lortzea, non haren senideen bizitzaren pasarte esanguratsuen narrazioak agertuko liratekeen.

6. Erreferentziak

- Abad Buil, Irene; Heredia Urzaiz, Iván & Marías Cárdenas, Sescún (2012): Castigos «de género» y violencia política en la España de posguerra. Hacia un concepto de «represión sexual» sobre las mujeres republicanas, in Ibarra Aguirregabiria, Alejandra (koord.), *No es país para jóvenes. Encuentro de jóvenes investigadores en historia contemporánea*, Universidad del País Vasco, Instituto de Historia Social Valentín Foronda.
- Altaffaylla Kultur Taldea (2018): *Navarra 1936. De la esperanza al terror*. Altaffaylla Kultur Taldea.
- Altuna Etcheberria M. (2024), Bizitza-istorioak: subjektibitatearen analisisa ikerketaren erdigunean, *Gerónimo de Uztáriz*, 38, 123-146 orr.
- Garjon Irigoien, A. eta Kowasch Velasco, A. (2024): *Nombres que recorren el tiempo. Mujeres asesinadas en Nafarroa 1936-1948*. Txalaparta, Tafalla.
- Joly, Maud (2002): Posguerra y represión sexual: las republicanas rapadas por los franquistas (1936-1950), in *Enfrontaments civils: postguerras i reconstruccions, Actas del ii Congreso de Investigación*, Asociación Recerques: Historia, Economía, Cultura, 47, 910-921. orr.
- Kelly, Liz (2000): Wars against Women: Sexual Violence, Sexual Politics and the militarised State, in Jacobs, Susie; Jacobson, Ruth & Marchbank, Jennifer (arg.) *States of Conflict: Gender, Violence and Resistance*, ZedBooks.
- Llona González, Miren & Aresti Esteban, Nerea (2019): Mary Nash, tras las huellas del feminismo histórico, in Ortega López, Teresa María; Aguado Higon, Ana & Hernández Sandoica, Elena (arg.) *Mujeres, Dones, Mulleres, Emakumeak. Estudios sobre la historia de las mujeres y del género*, Cátedra, Madrid, 359-378 orr.
- Majuelo Gil, E., Mendiola Gonzalo, F., Pérez Ibarrola, N., Oviedo Silva, D., Aldave Monreal, E., Piérola Narvarte, G., García Funes, J. C., Satrustegi Andres, I., Rodríguez Villar, I., e Indurain Ibero, A. (2021): Víctimas mortales de la represión en Navarra durante la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1948), in *Memoriapaper(ak)*, 10.
- Mir Curcó, Conxita (2021): La presencia de las mujeres en la represión franquista, in Mir, Conxita & Cenarro, Ángela (arg.) *Mujeres, Género y Violencia en la Guerra Civil y la Dictadura de Franco*, Tirant humanidades, Valencia, 13-42 orr.
- Molinero i Ruiz, Carme (1998), Mujer, franquismo, fascismo. La clausura forzada en un «mundo pequeño», *Historia Social*, 30, 97-117 orr.
- Nash Baldwin, Mary (2015): Vencidas, represaliadas y resistentes: las mujeres bajo el orden patriarcal franquista, in Casanova, Julián (arg.) *Cuarenta años con Franco*, Crítica, Barcelona. 190-227 orr.
- Nash Baldwin, M. (2021): La presencia de las mujeres en la represión franquista, in Mir, Conxita & Cenarro, Ángela (arg.) *Mujeres, Género y Violencia en la Guerra Civil y la Dictadura de Franco*, Tirant humanidades, Valencia, 13-42 orr.
- Piérola Narvarte, G. (2018): *Mujer e ideología en la dictadura franquista. Navarra 1939-1960*. Pamiela, Iruñea.

- Sánchez Sánchez, P. (2020): Un mar de luto. Represalias, control y represión de las mujeres en la dictadura franquista, in Oliver, P. eta Cubero, M^aC. (Koord.), *De los controles disciplinarios a los controles securitarios*, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, 17-32 orr.
- Scott, Joan W. (1900) El género: Una categoría útil para el análisis histórico in Amelang J.S. eta Nash Baldwin, M. (arg.), *Historia y género: las mujeres en la Europa moderna y contemporánea*, Diputación Provincial de Valencia, Valencia, 23-58 orr.

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu bide honetan lagundu gaituzten pertsona orori. Harremanetan egon garen biktimen familiei bereziki, partekatutako informazioagatik eta denboragatik, baina batez ere memoria elkarrekin eraikitzeagatik. Baita lagundu gaituzten erakunde eta ikerlariei guztiei ere, batez ere Nafarroako Memoriaren Institutuko langileei, NUPeko Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsean lanean dauden ikerlari guztiei, Gogora institutukoei eta Memorial Democràtic-eko ikerlariei. Azkenik, gurekin harremanetan eta laguntza eskaini diguten Nafarroako Memoria elkarte guztiei, eskerri asko zuen denboragatik.